

Gaztelueta Abenduak 3

Xabierreko Frantzisko deuna
eta Batxilergoko ikasleen izenei
buruzko bitxikeri bat

2014 Abe 12

1949an Eusko Ikaskuntzak Euskaren
Nazioarteko Eguna ezarri zuen eta ia
50 urte geroago, Euskaltzaindiak eta
Eusko Jaurlaritzak ofizialtasuna
eman zioten egun honi.

Baina galdera azkar sortzen zaigu,
zergatik hau bezalako egun batean?
Zer dela eta aukeratu zuten

abenduko egun hau ? Orain dela bost mende, 1552ko abenduaren 3an hil zen Xabierreko Frantzisko deuna Txinan, eta garaiko kondairak dioenez, hil aurreko azken hitzak bere ama hizkuntzan izan ziren, hots, euskaraz. Beraz, euskaldun saildua eta euskararen arteko harremana argi geratu zitzaien Eusko Ikaskuntzako arduradunei.

Eguna aprobetxatuz, Javier, Xabier edo Xabi asko gara egun honetan gure izenaren saildua ospatzen dugunok, baina Gazteluetako Batxilergoan zenbat Javier eta izena beraren eratorriak gara? Inkesta txiki eta erraza egin ostean, hona hemen erantzuna: guztira, hamar ikasle eta hiru irakasle. Izena ez da ugariena, izan ere, ehun eta berrogeitabost ikasleen artean, izenik erabiliena Ignacio dugu 13 lagunekin, eta lehen esan dudanez, Javier eta Alvaro 10na.

Zorionak Javier, Xabier, Xabi, eta
Patxi guztioi eta nola ez, nafar
guztioi ere ...

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/gaztelueta-abenduak-3/](https://opusdei.org/eu-es/article/gaztelueta-abenduak-3/)
(2025 Api 20)